



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA



Arriaga Antzokiak euskarazko antzerkia Europako eremura eramango du DoSEL proiektuaren bidez

- Europar Batasunaren Europa Sortzailea programak babestutako DoSEL proiektuaren helburu nagusia Europako hizkuntza gutxituetan idatzitako dramaturgia sustatzea, itzultzea eta hedatzea da.
- Euskarazko antzerkiarentzako aukera bikain bat da, Arriaga Antzokiak gure hizkuntza nazioartean kokatuko baitu, beste herrialde batzuetan ikusi ahal izango den produkzio propio baten bidez.
- DoSEL proiektuak itzulpen-tailerrak, dramaturgia-egonaldi artistikoak, mahai-inguruak, hitzaldiak, irakurketa dramatizatuak eta nazioarteko bi erakusketa ere barne hartzen ditu.
- Arriaga Antzokiarekin batera, Eslovenia, Malta, Estonia, Kosovo, Kroazia, Bulgaria eta Kataluniako kultura-espazioek parte hartzen dute proiektuan.

Bilbo, 2024ko azaroak 13.- Arriaga Antzokiak euskara Europara eramango du. Arriaga Antzokiak DoSEL (Drama of Smaller European Languages) proiektu europarrean parte hartuko duela iragarri nahi du. Duela urtebete hasi ziren ekimena prestatzen, eta orain abian jartzeko eta jendaurrean ezagutzera emateko unea da.

DoSEL proiektuaren helburu nagusia Europako hizkuntza gutxituetan idatzitako dramaturgia sustatzea, itzultzea eta hedatzea da; eta Europar Batasunaren Europa Sortzailea programak ko-finantzatutako egitasmoa da. Arriaga Antzokiak eta gure hizkuntzak, euskarak, nazioarteko presentzia izango dute, beraz, 2026ko amaierara arte garatuko den proiektu honi esker, zeina aukera paregabe bat izango baita, gure antzerkiarentzat ez ezik, baita hizkuntzarentzat berarentzat eta euskarazko dramaturgiarentzat ere.

Proiektu honetan parte hartzearen emaitza gisa, Arriaga Antzokiaren euskarazko produkzio bat Europako beste hizkuntza gutxitu batera itzuliko da. Gainera, proiektuan parte hartzen duten herrialdeetako bitan antzeztuko da, gutxienez, eta hori, zalantzarik gabe, erakusleihen bikaina da gure hizkuntzarentzat, baita gure artista eta sortzaileen lana beste herrialde batzuetan ikusteko aukera ere. Datozen asteetan zehaztuko dira Arriaga Antzokiak proiektu honetan antzeztuko duen euskarazko produkzioari buruzko xehetasunak, baita emanaldiak eskainiko dituzten herrialdeei buruzkoak ere.



Arriaga Antzokiko produkzioen bat beste herrialde batzuetara eramateko aukeraz gain, DoSEL proiektuaren barruan hainbat jardura ere antolatuko dira, hala nola itzulpen-tailerrak, dramaturgia-egonaldi artistikoak, mahai-inguruak eta hitzaldiak. Nazioarteko bi erakusketa garrantzitsu ere antolatuko dira, Eslovenian eta Maltan. Proiektuaren emaitzen zati gisa, 24 antzerki-testu argitaratuko dira, bai jatorrizko hizkuntzetan, bai herrialde parte-hartzaileetako beste hizkuntza batzuetara itzulita.

Europako dibertsitatea

Arriaga Antzokiak gogo handiz hartzen du parte proiektu honetan, zeinetan Europako dibertsitate kulturala sustatu nahi baita, esperientziak trukatzuz eta kontinente zaharreko beste antzoki batzuekin lankidetzan arituz, horiek ere hizkuntza gutxietan lan egiten baitute.

Hala, proiektu honetan honako kultura-gune hauek hartzen dute parte, Bilboko Arriaga Antzokiarekin batera: Presernovo gledališce Kranj (Eslovenia), National Agency for the Performing Arts (Malta), Croatian National Theatre in Zagreb (Kroazia), Foundation Estonian Theatre Agency (Estonia), National Theatre of Kosovo (Kosovo), "Ivan Vazov" National Theatre (Bulgaria) eta Beckett aretoa (Katalunia).



Informazio gehiago:
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus

